

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### GAUBEAKO UDALA

#### Udalaren biztanle erroldan ofizioz baja ematea

Eranskinean zerrendatzen diren pertsonak ez daude arauz inskribatuta Gaubeako Udalaren biztanle erroldan, ez baitira bizi erroldatuta dauden etxebizitzan. Horiek horrela, eta uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretuak, toki erakundeetako biztanle eta mugen arautegia onartzen duenak, 57. eta 68. artikuluetan xedatutakoa betetzen ez dutenez gero eta arauz erroldatuta ez daudenez gero, alkate-lehendakariak hasiera eman dio espediente bati udalaren biztanle erroldan baja emateko, bat etorritz Estatistikako Institutu Nazionalaren zuzendariaren eta Lurraldeen arteko Lankidetzarako zuzendari nagusiaren 1997ko uztailaren 4ko ebazpenaren 3. paragrafoan xedatutakoarekin.

Arauzko jakinarazpenak ezin egin izan direnez gero, bat etorritz azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearenak, 59.4. artikuluan xedatutakoarekin, udal honen ediktu taulan argitaratuz eta ALHAOn iragarki bat jarriz jakinarazten da, interesdunek aukera izan dezaten, hamabost eguneko epean, alegatu, egoki jotzen dituzten agiriak eta frogagiriak aurkeztu eta Gaubeako Udalaren biztanle erroldan arauz inskribatuta daudela egiaztatzeko, edo, bestela, errolda egoera erregularizatzeko, udal honi jakinaraziz zein helbidetara aldatu diren edo egun zein udalerritan bizi diren.

Epe hori igaro eta ez bada egin ez bata eta ez bestea, baja erregistratu egingo da udalaren biztanle erroldan, eta horrek bere ondorioak izango ditu; besteak beste, hautesle erroldako baja.

#### Eranskina

Adil Khalil

Álvaro Arispe Sáez

Iker Igor Moncada Aguilar

Gaubea, 2016ko abuztuaren 31

*Alkate lehendakaria*

*JUAN CARLOS RAMÍREZ-ESCUDERO ISUSI*